\* Portzentaiak, lortutako erantzun guztiak kontuan hartuta kalkulatu daude. Azpiegituren eskeintza egokia dela, eta hortaz, beharrianik ez dagoela, uste duen biztanleriaren %49a alde batera utzi da.

# Kirol eskaintzari buruzko iritzia

## EUSKADIN DAGOEN KIROL ESKAINTZARI BURUZKO IRITZIA

### ERAKUNDE PUBLIKOEN LAGUNTZARI BURUZKO IRITZIA ESKOLA KIROLA ARLOAN

GALDERA: "Hurrengo esaldiarekin duzun adostasuna adierazi (1= ez nago batere ados, 5= guztiz ados nago):  
Erakunde publikoek era egokian bultzatzen dute... ESKOLA KIROLA".




Orohar, ebatzi daiteke biztanleriaren iritzia erakunde publikoek laguntzari buruz egokia dela, eskola kirolari dagokionez behintzat. Hala ere, %18 batek "batere egokia" edo "desegokia" deritzo.

# Kirol eskaintzari buruzko iritzia

## EUSKADIN DAGOEN KIROL ESKAINTZARI BURUZKO IRITZIA

### ERAKUNDE PUBLIKOEN LAGUNTZARI BURUZKO IRITZIA PARTE-HARTZE KIROLA ARLOAN

GALDERA: "Hurrengo esaldiarekin duzun adostasuna adierazi (1= ez nago batere ados, 5= guztiz ados nago):  
Erakunde publikoek era egokian bultzatzen dute.... PARTE-HARTZE KIROLA".




Erakunde publikoek parte-hartze kirolean eskaintzen duten bultzadarekiko iritzia, guztiz neutrala da. Biztanleriak uste du eskaintza normala dela, ez egokia ezta desegokia ere. Galdetutakoen laurden batek "batere egokia" edo "desegokia" deritzo.

# Kirol eskaintzari buruzko iritzia

## EUSKADIN DAGOEN KIROL ESKAINTZARI BURUZKO IRITZIA

### ERAKUNDE PUBLIKOEN LAGUNTZARI BURUZKO IRITZIA GOI-MAILAKO KIROLA ARLOAN

GALDERA: "Hurrengo esaldiarekin duzun adostasuna adierazi (1= ez nago batere ados, 5= guztiz ados nago):  
Erakunde publikoek era egokian bultzatzen dute... GOI-MAILAKO KIROLA".



Erakunde publikoek goi-mailako kirolari eskaintzen dioten laguntza era egokian baloratzen du biztanleriak, parte-hartze kirolari eskainitakoa baino gehiago eta eskola kirolari eskaintakoaren antzera.


Laburbilduz, biztanleriak uste du erakunde publikoen laguntza era egokiagoan eskaintzen dela goi-mailako kirolean, eskola kirola eta parte-hartze kirola baino, hurrenez hurren.

# Kirol eskaintzari buruzko iritzia

## EUSKADIN DAGOEN KIROL ESKAINTZARI BURUZKO IRITZIA

### HERRI KIROLAK LAGUNTZEAREN EGOKITASUNA

GALDERA: Zein da zure iritzia herri kirolei buruz?  
(arrauna, pilota, etab.)



Galdera hau hurrengo modu honetan aditzera eman zen: galdetutakoak argi bereiztu behar zuten bere pentsakera herri-kirolei buruz; jaso behar duten bultzada baten alde, axolagabetasunez ("Ez daki/ez du erantzuten") edo beste kirolei eskaini ahal izango ziratekeen baliabideak herri kirolei eskaintzearen kontra.

Adameneko grafikoan ikusten den bezela, galdetutakoek gehiengoak uste du herri kirolen praktika bultzatu beharko litzatekela programa edota politika zehatzen bitartez.

### TALDEKAKO BANAKETA

Adinaren arabera ez dira desberdintasun nabariak somatzen.

Adin taldea	Bere praktika buktzatu beharko litzateke zehazki	Ez dit axola, inolaz ere ez	Ed/ee
15-25	66%	21%	13%
26-35	72%	13%	15%
36-49	67%	18%	15%
50-64	68%	15%	17%
65-75	76%	13%	11%

Sexuaren arabera, gizonezkoek interes gehiago agertzen dute herri kirolen bultzadari dagokionez.

Sexua	Bere praktika buktzatu beharko litzateke zehazki	Ez dit axola, inolaz ere ez	Ed/ee
Gizona	77%	10%	13%
Emakumea	62%	23%	16%

---

Sarrera eta helburuak

---

Kirol parte hartze maila

---

Euskadin dagoen kirol eskaintzari buruzko iritzia

---

Kirolari buruzko ikuspegia

---

Kirolarekin erlazioa duten ohiturak

---

Kirolarekin erlazonaturiko beste ikuspegiak

---

Ondorioak

---

Eranskinak

# Aurkibidea

---

Sarrera eta helburuak

---

Kirol parte hartze maila

---

Euskadin dagoen kirol eskaintzari buruzko iritzia

Kirolari buruzko ikuspegia

- Kirolaren baliogarritasunari/onurei buruzko iritzia
  - Aholkatze tekniko baten beharrianari buruzko iritzia
- 

Kirolarekin erlazioa duten ohiturak

---

Kirolarekin erlazonaturiko beste ikuspegiak

---

Ondorioak

---

Eranskinak


# Percepción sobre el deporte

## KIROLARI BURUZKO IKUSPEGIA

### KIROLAREN BALIOGARRITASUNARI/ONUREI BURUZKO IRITZIA

GALDERA: "Hurrengo esaldiekin duzun adostasuna adierazi (1= ez nago batere ados, 5= guztiz ados nago):

Kirol jarduera hurrengo hauek lortzeko balio du...



Biztanleriak uste du kirola baliabide egokia dela sasoiari egoteko, beste aukerak baino gehiago. Aukerari dagokionez, hau da, kirola konpetitibitatea/agresibitatea bultzatzeko tresna bezala ulertzeari dagokionez, iritzien banaketa ematen da eta ez dago ideia orokor bat ateratzerik.

Sexuaren arabera, ez dira desberdintasun handirik nabaritzen. Konpetitibitatea/agresibitatea bultzatzeko kirolak duen baliagarritasunaren soilik agertzen dira desberdintasun txikiak.

Konpetitibitatea /agresibitatea bultzatzeko	1	2	3	4	5	Ns/nc	
Gizona	18%	21%	17%	14%	27%	3%	100%
Emakumea	20%	23%	20%	13%	19%	4%	100%

Adinaren arabera, nabarmendu daitezkeen gauza bakarra da 65 urtetik gorakoek baliagarritasun handiena aurkitzen diotela jendearekin erlazionatzeko, eta 25 urtetik beherakoek baliagarritasun gutxi aurkitzen diotela Konpetitibitatea/agresibitatea bultzatzeko.

# Percepción sobre el deporte

## PERCEPCIÓN SOBRE EL DEPORTE EN GENERAL

### AHOLKATZE TEKNIKO BATEN BEHARRIZANARI BURUZKO IRITZIA

GALDERA: "Hurrengo esaldiekin duzun adostasuna adierazi (1= ez nago batere ados, 5= guztiz ados nago):

Kirol batean hasteko/jarraitzeko ezinbestekoa da aditu baten formakuntza edo aholkularitza



Orokorrean, euskal gizarteak uste du bai kirol batean hasteko eta baita kirol horretan jarraitzeko, aholkatze tekniko beharrezkoa dela.

✓ Adinaren arabera, pertsonak zahartzen doazen heinean, kirolen baten hasteko aholkatze teknikoaren beharritza guxiago aurkitzen dute. Honen arrazoia izan daiteke, adintsuenen artean gehien praktikatzen den kirola ibiltzea dela.

✓ Sexuaren arabera, gizonezkoen eta emakumezkoen iritzia ia berbera da, bai kirol batean hasteko eta baita kirol horrekin jarraitzeko ere.

Nahiz eta biztanleriak aholkularitza beharrezkotzat hartu, kirola praktikatzen dutenen %32ak besterik ez du baieztatu azken urtean aholkatze teknikoren bat jaso duela.

---

Sarrera eta helburuak

---

Kirol parte hartze maila

---

Euskadin dagoen kirol eskaintzari buruzko iritzia

---

Kirolari buruzko ikuspegia

---

Kirolarekin erlazioa duten ohiturak

---

Kirolarekin erlazonaturiko beste ikuspegiak

---

Ondorioak

---

Eranskinak

# Aurkibidea

---

Sarrera eta helburuak

---

Kirol parte hartze maila

---

Euskadin dagoen kirol eskaintzari buruzko iritzia

---

Kirolari buruzko ikuspegia

Kirolarekin erlazioa duten ohiturak

- Kirol ospakizunen ikuskizuna
  - Kirolean egindako hilabeteroko gastua
  - Boluntariora maila
  - Egonkortasun (sedentaritza) maila
- 

Kirolarekin erlazionaturiko beste ikuspegiak

---

Ondorioak

---


Eranskinak

# Kirolarekin erlazioa duten ohiturak

## KIROLAREKIN ERLAZIOA DUTEN KIROLAK

### KIROL OSPAKIZUNEN IKUSKIZUNA SARRERA ORDAINDUZ


Sarrera ordaintzea derrigorrezkoa den kirol ospakizunetara joaten zara?



- ✓ Kirol ospakizunetara joatearen maiztasuna diru sarrera mailaren arabera aztertzen badugu, ikusten da hilabeteroko diru sarrerak gero eta altuagoak direnean maizago joaten dela. Hala eta guztiz ere, portaera hau ez da asko nabaritzen.
- ✓ Adinaren arabera, jendea gero eta zaharragoa izan, orduan eta gutxiago joaten da kirol ospakizunetara.
- ✓ Sexuaren arabera, gizonezkoak emakumezkoak baino askoz gehiago joaten dira. Emakumezkoetan, kirol ospakizunetara inoiz joaten ez direnak %57a dira, eta gizonezkoetan, aldiz, %29a. Maiz joaten direnak, %5 a besterik ez dira emakumezkoetan, eta gizonezkoetan %23a.

### KIROL OSPAKIZUNEN IKUSKIZUNA DOHAINIK

Sarrera ordaindu behar ez den kirol ospakizunetara joaten zara?



- ✓ Dohaineko ospakizunetara eta sarrera ordaindu beharreko ospakizunetara doan jende kopurua nahiko berdintsua da, lehenengotan pixka bat handiagoa den arren.
- ✓ Dohaineko ospakizunetan eta sarrera ordaindu beharreko ospakizunetan diru sarreraren arabera oso antzekoa da.
- ✓ Adinaren arabera baita ere.
- ✓ Sexuaren arabera, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko diferentzia txikiagoa da dohaineko ospakizunetan. Dohaineko ospakizunetara inoiz ez doazen emakumeak taldearen %49ra heltzen dira (gizonezkoetan %9), eta sarritan edo oso maiz doazenak %5a dira emakumezkoen artean (gizonezkoen artean %20a).

Nota: Maiz (hilabetearen behin edo gehiagotan), Noizbehinka (astearen behin), Gutxitan (hilabetearen 1etik 3ra)

# Kirolarekin erlazioa duten ohiturak

## KIROLAREKIN ERLAZIOA DUTEN KIROLAK

### KIROL OSPAKIZUNEN IKUSKIZUNA: **GEHIEN IKUSTEN DIREN KIROLAK**

Galdetutakoen %34ak ez zuen galdera hau erantzun. Hortaz, onartu daiteke inoiz ere ez doazela kirol ikuskizunetara.

✓ Gehien ikusten den kirola, nabarmenki, futbola da. Saskibaloia eta pilota darraizkio. Beste kirol guztien artean, %18ra besterik ez dira heltzen.

✓ Adinaren arabera, banaketa nahiko berdintsua da talde guztietan.

✓ Sexuaren arabera, gizonezkoen eta emakumezkoen portaera nahiko berdintsua da baita ere. Arte martzialak, herri kirolak, futbola eta automobilismoa nabarmendu daitezke gizonezkoetan (kirol hauetan joale guztien %70a gizonezkoak dira). Bestalde, emakumezkoek gehien ikusten dituzten kirolak igeriketa, tenisa, boleibola, dantza eta eskola kirola dira (kirol honeetan joale guztien %0a emakumezkoak dira).

GALDERA: Zein kirol ospakizunetara zoaz batez ere?

Ikuskizunetan jarraitzen diren kirolak	Erantzun kopurua	biztanleriaren portzentaia
futbola	360	36%
Bat ere ez	339	34%
saskibaloia	81	8%
euskal pilota	46	5%
atletismoa	15	1%
arrauna	15	1%
herri kirolak	14	1%
futbol sala	14	1%
bizikleta	11	1%
igeriketa	11	1%
arte matzialak, boxeoa, borroka	10	1%
pika	9	1%
eskola kirola	8	1%
gimnasia ritmika	7	1%
surf	7	1%
automobilismoa eta motorrak	6	1%
eskubaloia	6	1%
Padel, Tenis, Badminton y Squash	6	1%
voleybol	6	1%
Besteak	30	3%
<b>Guztira</b>	<b>1001</b>	<b>100%</b>

# Kirolarekin erlazioa duten ohiturak


## KIROLAREKIN ERLAZIOA DUTEN KIROLAK

### KIROL OSPAKIZUNEN IKUSKIZUNA KOMUNIKABIDEETAN

GALDERA: Komunikabideetan kirola jarraitzen duzu (TV, irratia, prentsa edo Internet)?

Alboko grafikoak argi adierazten du nolakoa den kirolaren jarraipena komunikabideetan

- ✓ Adinaren arabera, biztanleria zahartzen doan heinean, kirola gutxiago jarraitzen da.
- ✓ Sexuaren arabera, gizonezkoek gehiago jarraitzen dute (gizonezkoen %63ak emakumezkoen %22aren aldean).



Nota: Maiz (astean birritan edo gehiago), Noizbehinka (astean behin), Gutxitan (hilabetean 1etik 3ra)

### GASTO MENSUAL EN DEPORTE


GALDERA: Hilabetero zenbat gastatzen duzu kirol jardueran (kuotak, materialen erosketa...)?

Biztanleriaren gehiengoak hilabetean 10 euro baino gutxiago gastatzen dutela baieztatzen du kirol jardueran.

- ✓ Diru sarrera maila ez dirudi aldagai erabakigarria kirol gastua erabakitzeko orduan.

	<10 Euros	10-60 Euros	60-120 Euros	120-240 Euros	>240 Euros	Ns/Nc	
<1000 Euros	48%	29%	8%	3%	0%	13%	100%
1000-1500	49%	25%	12%	2%	1%	11%	100%
1500-2000	32%	30%	20%	6%	3%	9%	100%
2000-3500	45%	16%	20%	5%	9%	5%	100%
>3500	17%	50%	0%	33%	0%	0%	100%

- ✓ Adinaren arabera, ez dago portaera aipagarririk ezta ere.
- ✓ Azkenik, gizonezkoetan 10 euro baino gutxiago gastatzen dutenak %39a dira eta emakumezkoetan %51a.



Nota: inkestatuaren gastuak soilik, ez famili unitatea (umeen kirola ez dago barne)

# Kirolarekin erlazioa duten ohiturak

## KIROLAREKIN ERLAZIOA DUTEN KIROLAK

### BOLUNTARIOTZA MAILA

**Euskal biztanleriaren % 16a** kirol boluntariora jardueraren baten hartu zuen parte azken urtean. Bestalde, boluntarioa ez izateko arrazoi nagusiak interes falta (%37a) eta denbora falta (%22a) dira. (informazio falta %8a, konpromesuen beldur %1a, beste erantzunak %3a eta Ez daki/ez du erantzuten %29a).


#### Taldeka:

Gizonezkoen eta adin ertainekoen taldeetan parte-hartzea handiagoa da (arrazoia eskola kiroleko jardueretan parte hartzea izan daiteke).

	Ez	Bai	
Gizona	79%	21%	100%
Emakumea	87%	13%	100%


	Ez	Bai	
15-25	80%	20%	100%
26-35	85%	15%	100%
36-49	76%	24%	100%
50-64	91%	9%	100%
65-75	93%	7%	100%

Azken urtean, kirol jarduera baten antolakuntzan aritu al zara borondatezko laguntzaile bezela?



### KIROLAZ APARTEKO JARDUERA FISIKOA

Bigarren solairu batera igo beharko bazina, igogailua hartuko zenuke edo oinez igoko zinateke?



Galdera xeibre honen bitartez jendearen egonkortasun/sedentaritza maila nertu nahi da.

	Oinez	Igogailuan	
15-25	62%	38%	100%
26-35	57%	43%	100%
36-49	60%	40%	100%
50-64	40%	60%	100%
65-75	24%	76%	100%

✓ Itxaron zitekeenez, jende nagusiena da igogailua gehien erabiltzen duena.

	Oinez	Igogailuan	
Gizona	56%	44%	100%
Emakumea	51%	49%	100%

✓ Sexuaren arabera, gizonezkoek pixka bat gutxiago erabiltzen dutela dirudi.

---

Sarrera eta helburuak

---

Kirol parte hartze maila

---

Euskadin dagoen kirol eskaintzari buruzko iritzia

---

Kirolari buruzko ikuspegia

---

Kirolarekin erlazioa duten ohiturak

---

Kirolarekin erlazonaturiko beste ikuspegiak

---

Ondorioak

---

Eranskinak

# Aurkibidea

---

Sarrera eta helburuak

---

Kirol parte hartze maila

---

Euskadin dagoen kirol eskaintzari buruzko iritzia

---

Kirolari buruzko ikuspegia

---

Kirolarekin erlazioa duten ohiturak

Kirolarekin erlazionaturiko beste ikuspegiak

- Euskal kirolean dagoen indarkeria mailaren somaketa
  - Euskal selekzioen ofizialtasuna
- 

Ondorioak

---

Eranskinak

# Otros aspectos relacionados


## KIROLAREKIN ERLAZIONATURIKO BESTE IKUSPEGIAK

### EUSKAL KIROLEAN DAGOEN INDARKERIA MAILAREN SOMAKETA

GALDERA: Oro har, eta beti ere euskal kirolean pentsatzen, eskola kiroletik hasita goi mailako kirolerarte, zelan sailkatuko zenuke zuk euskal kirolaren indarkeria maila?


Biztanleriaren iritziz, euskal kirolean dagoen indarkeria maila ez da oso altua. Alboko grafikoak argi baieztatzen du.

✓ Bai adinaren arabera eta baita sexuaren arabera ere, galdetutakoen iritzia nahiko antzekoa da.



### EUSKAL SELEKZIOEN OFIZIALTASUNA

Euskal Selektzioek era ofizialean lehiatzeko aukera izatea gustatuko litzaizuke?



Euskal gizartearen gehiengo zabalak (%74ak) Euskal Kirol Selektzioek lehiaketa ofizialetan parte hartzeko aukera izatearen alde dago. Ofizialtasunaren kontra azaltzen direnak %10a dira eta %16 bati berdin dio.

✓ Hiru kapitatean herrietan baino pixka bat txikiagoa da baiezkoen portzentaia: Bilbao (%75a), Donostia (%69a) eta Gasteiz (%64a). Bizkaiko herrietan aldiz %85a, gipuzkoako herrietan %81a eta Arabako herrietan %77a.

---

Sarrera eta helburuak

---

Kirol parte hartze maila

---

Euskadin dagoen kirol eskaintzari buruzko iritzia

---

Kirolari buruzko ikuspegia

---

Kirolarekin erlazioa duten ohiturak

---

Kirolarekin erlazonaturiko beste ikuspegiak

Ondorioak

Eranskinak

# Ondorioak

## DATUEN EXPLOTAZIOTIK ATERATAKO ONDORIO NAGUSIAK

Ikerketa honek EAEko kirolaren egoerari buruzko informazio maila ikaragarria eskaintzen du.

Landutako informazio kopuru handia eta konparaketa anitzak direla eta, hurrengo atal honen xedea sintesi argi bat aurkeztea da, ondorio argienak azalduz eta laburpen bat besterik ez dela kontutan hartuz, dokumentu osoak ikasgai diren datu baliagarri piloa duela ahaztu barik.

### ✓ Kirol parte-hartze maila

Azken hilabetearen euskal biztanleriaren %54ak kirolen bat praktikatu du, eta %46ak gutxienez astean behin praktikatzen du. Sexuaren arabera, gizonezkoek (%65) emakumezkoek (%45) baino gehiago praktikatzen dute.

Azken hilabetearen kirola praktikatu ez dutenen artean, %46ak ez du kirolen bat praktikatzeko inolako interesik azaltzen. Bestalde, egun kirolen bat praktikatzen ez duten baina gustatuko litzaiekeen artean, igeriketa da kirolik atsegina, eta kirola ez praktikatzeko arrazoirik nagusia denbora falta da.

Kirola praktikatzen dutenen artean, modalitate praktikatuak hurrengo hauek dira: gimnasia (kirola praktikatu dutenen %19a), ibiltzea (%15a), futbola (%11) eta igeriketa (%10a). Kirolari honeen gehiengoak gutxienez astean behin praktikatzen du (%84ak) eta normalean ordu bete eta bi orduren arteko sesiotan (%64ak). Astegunak eta urtroak ez dute eragin handirik.

Kirola praktikatzearren arrazoi nagusiak dibertimendua eta sasoiaren mantentzea dira. Kirola egiteko erari buruz, azken hilabetearen kirola egin zutenen artean gehiengoak bere kabuz egiten zuela adierazi zuen (%63a), gimnasio/klub pribatu baten aktibitate bezala praktikatu beharrean (%21a) edota kirol erakunde municipal bateko aktibitate gisa (%9a). Tokiari dagokionez, haize zabala da maizago aukeratutako lekua (%36), sarrera mugatuko instalazio publikoen (%24), gimnasio/klub pribatuen (%21) edota sarrera libreko instalazio publikoen (%12) aurretik. Azkenik, inkestako kirolarien %48ak jendearekin praktikatzen du kirola gehien bat, eta %32ak bakarrik egiten du.

Kirol kanpainen eraginari dagokionez, kirolarien (gutxienez azken hilabetearen kirola egin zutenak) %6ak besterik ez du baieztatu kirol kanpaina batengatik bultzatuta egon dela.

Azkenik, kirolarien %23ak besterik ez du jaso kirol ikuskapen medikuren bat azken urtean zehar, eta %32ak ahokatzeko teknikoak.

### ✓ Euskadin dagoen kirol eskaintzari buruzko iritzia

Kirol azpiegituren eskeintza, bai publikoa eta baita pribatua ere, egokiro baloratzen dira, aniztasun eta profesionaltasunari dagokionez batez ere. Hala eta guztiz ere, prezioa bereziki desegoki baloratzen da azpiegitura pribatuetan, eta euskerazko eskeintza baita ere, nahiz eta gutxiago.

# Ondorioak

## DATUEN EXPLOTAZIOIK ATERATAKO ONDORIO NAGUSIAK

Azpiegituren beharrianari dagokionez, inkestatuen %49ak uste du eskeintza ondo dagoela eta ez dela azpiegitura berrien eraikitzerik behar bere ingurune hurbilean. Baiezkoa erantzun zutenen artean, gehien aldarrikatutako azpiegiturak honako hauek izan ziren, hurrenez hurren: igerilekuak, polikiroldegia, gimnasioak eta bidegorriak.

Erakunde publikoek kirol arloan eskaintzen duten laguntzari buruz, goi-mailako kirolari zuzendutako laguntza da egokiro balotatzen dena, gero eskola kirola eta azkenik parte-hartze kirola.

Herri kirolek jaso behar duten laguntzagatik galdetuta, inkestatuen %69ak uste du bere praktika bultzatu beharko litzatekela zehazki, inolaz ere axola ez zaien aurrean (%17a) eta ez dakiten/erantzun ez dutenen aurrean (%14a).

### ✓ Kirolari buruzko ikuspegia

Biztanleriak uste du kirolak eskaintzen duen baliagarritasunik onuragarriena sasoian mantentzea dela. Kirolak duen konpetitibitatea/agresibitatea bultzatzeko joerari buruz, iritzien zatiketa nabaria dago eta ez dago ideia orokor bat ateratzerik.

Nahiz eta azken hilaebtean kirola praktikatu zutenen artean %32ak besterik ez zuen aholkatze teknikorik jaso, inkestatutakoen gehiengo zabalak uste du, bai kirolari izan edo ez izan, aholkatze tekniko oso beharrezkoa dela kirol batean hasteko edota erregularki jarduteko.

### ✓ Kirolarekin erlazioa duten ohiturak

Biztanleriaren %39a ez doa inoiz ere ez dohaineko kirol ospakizunetara, eta %44a sarrera ordaindu beharreko ospakizunetara. Adinaren arabera, geroz eta adintsuago izan, orduan eta gutxiago joaten da, eta sexuaren arabera, gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago joaten dira. Alde handiz, gehien ikusten den kirola futbola da (biztanleriaren %36ak gehien ikusten duen kirola futbola da). Jarraian, saskibaloia dago (%8a) eta ondoren euskal pilota (%5a). Hilabeteroko kirol gastua ez da 10 euro baino gorakoa biztanleriaren %46arentzat.

Inkesta honen arabera, kirol boluntariora maila biztanleriaren %16a suposatzen du.

Bigarren pisu batera nola igoko ziren galdetuz, %52ak oinez igoko zuela baieztatzen du eta %46ak igogailuan (%2ak ez zekien edota ez zuen erantzun).

### ✓ Kirolarekin erlazioaturiko beste ikuspegiak

Biztanleriaren %25 batek uste du nolabaiteko indarkeria maila dagoela euskal kirolean (%18ak uste du indarkeria maila ertaina dela, %6ak altua dela eta %1ak oso altua dela).

Euskal selekzioen ofizialtasunari dagokionez, biztanleriaren %74ak azaltzen du euskal selekzioen bitartez era ofizialean lehiatzeko aukera izatearen nahia.

---

Sarrera eta helburuak

---

Kirol parte hartze maila

---

Euskadin dagoen kirol eskaintzari buruzko iritzia

---

Kirolari buruzko ikuspegia

---

Kirolarekin erlazioa duten ohiturak

---

Kirolarekin erlazonaturiko beste ikuspegiak

---

Ondorioak

Eranskinak

---

## Eranskinak

---

- Inkesta prozeduraren fitxa metodologikoa
- Argipen metodologikoak
- Unibertso muestralaren ezaugarriak
- Beste inkesta batzuekiko konparaketa
- Galdeketa

# 1 Eranskina: Inkesta prozeduraren fitxa metodologikoa

## INKESTA PROZESUAREN FITXA TEKNIKOA

### Landa-lanaren burutzapen data

Inkestapen prozesua hiru lurralde historikoen kapitaletan burutu da ondorengo egun hauetan zehar:

- Bizkaia - Bilbao: Apirilaren 14-18
- Gipuzkoa - Donosti: Apirilaren 21-26
- Araba - Gazteiz: Apirilaren 21-23

### Prozesuaren zehazpena

15 eta 75 urte bitarteko gizonetzkoak eta emakumezkoak inkestatu dira, hiru lurralde historikoetan eta lurralde bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera estratifikatuta.

### Inkesta mota

Presentziazko inkesta pertsonala

### Diseinu muestrala

Laginketa aleatorio sinplea

### Konfidantza maila eta errakuntza muestrala

Errakuntza muestrala %3,15ekoa da EAErako, %95,5eko konfidantza maila baterako  $z=2$  eta  $p=q$  izanik  
Laginaren kalkulurako unibertaria: 1.666.903 biztanle (\*)

### Laginaren tamaina

- Diseinatutakoa: 1.200
- Burututakoa: 1.001. Hurrengo banaketa hau jarraituz:
  - Araba: 195 pertsona ( $e=\pm 7,17\%$ )
  - Bizkaia: 537 pertsona ( $e=\pm 6,11\%$ )
  - Gipuzkoa: 269 pertsona ( $e=\pm 4,31\%$ )

(\*) 15-75 urte bitarteko EAeko biztanleria, INEko datuen arabera (2006ko urtarrilak 1ean)

---

## Eranskinak

- Inkesta prozeduraren fitxa metodologikoa
- Argipen metodologikoak
- Unibertso muestralaren ezaugarriak
- Beste inkesta batzuekiko konparaketa
- Galdeketa

## 2 Eranskina: Argipen metodologikoak

### KIROL PRAKTIKAREN DEFINIZIOA

Ikerketa honetako *kirol ekintzaren* mugapenerako, Europako Kirol Gutunean erabilitako definizioa erabili da. Honen arabera, hurrengo hau ulertzen da kirol bezela: “antolatutako parte hartze baten bitartez edota beste era baten bitartez praktikatutako edozein ekintza fisikoa, baldin eta hobekuntza fisiko edota psikiko bat helburu badu, harreman sozialen garapena helburu badu edota edozein mailako kirol lehiaketaren baten emaitzen lorpena helburu badu”.

### KIROL PRAKTIKA DESBERDINEN SAILKAPENA MODALITATE ZEHATZETAN

Praktikatzen den kirol mota ezagutzeko eginiko galderak, itaun zabalak dira, non inkestatutakoak nahi duen erantzuna emoten duen. Pertsona bakoitzak kirol mota baten definizioari buruz duen ulermena desberdina dela eta, jasotako erantzun guztiak era egoki baten sailkatzen dituen zerrenda baten konposaketa egin behar izan da. Zerrenda honek 43 modalitate desberdin zenbatzen ditu, beheko taulan adierazita. Ikusi daitekenez, espezializazio desberdinak barneratzen dituzten modalitateak daude (hala nola, arte martzialak, boxeoa eta borroka barneratzen dituen modalitate bakarra).

Ikerketa honetan erabilitako kirol modalitateen zerrenda
Aktibitate subakuatikoak
Xakea
Arte martzialak, boxeoa, borroka (Judo, Karate, sanbo, kickboxing, tekwondo etab.)
Atletismoa
Automobilismoa eta motorrak
Dantza ((ballet, saloi dantzak, karibearra, flamenkoa etab.)
Saskibaloia
Eskubaloia
Beisbol eta softbol
Billar
Boloak
Ibiltzea
Ehiza, arrantza eta castinga
Bizikleta
Korrika
Gaigabezituen kirolak
Haize kirolak
Herri kirolak (euskal dantzak barne)
neguko kirolak
Esgrima

Ikerketa honetan erabilitako kirol modalitateen zerrenda
Halterofili/kulturismoa
Futbola
Futbol amerikarra
Futbol sala/futbito
mantentze gimnasia, fitness, aerobik, yoga, taichi, pilates, spinning
kirol gimnasia (potroa, anillak, barra tinkoa etab.) eta artistikoa
Golf
Hipika eta poloa
Hockey
Mendia, eskalada
Igeriketa eta waterpolo
Padel, tenis, badminton eta squash
Patinajea
Euskal pilota (forntoia)
Petanka
Arrauna
Rugbya
Surf/windsurfa
Ping pong
Tiroa (olimpikoa, arkuarekin, platerrak)
Triatloia
Boleibola

### KIROLARIEN DEFINIZIOA

Ikerketa honerri dagokionez, kirolari bezela ulertzen da azken hilabeteen kirolen bat praktikatu duen pertsona. Galdera honetan ezezkoa erantzun zutenak ez dira kontutan hartu galdera batzuetan (adibidez, kirol praktikaren maiztasuna, sasoi bakoitzeko iraupena, kirola egiteko era etab.).

---

## Eranskinak

---


- Inkesta prozeduraren fitxa metodologikoa
- Argipen metodologikoak
- Unibertso muestralaren ezaugarriak
- Beste inkesta batzuekiko konparaketa
- Galdeketa

### 3 Eranskina: Unibertso muestralaren ezaugarriak

#### INKESTATUAREN PERFLA/ UNIBERTSO MUESTRALAREN EZAUGARRIAK

##### LURRALDEA, ADINA eta SEXUA


###### LURRALDEKAKO BANAKETA



- ✓ Lurralde historiko bakoitzean egindako inkesta kopuruaren eta lurralde bakoitzeko biztanleriaren banaketa oso antezkoak dira (Bizkaiko biztanleria %54koa da, Gipuzkoakoa %32koa eta Arabakoa %14koa). Lurraldeka estratifikatutako lagina kontsideratu daiteke.
- ✓ Hortaz, laginak eta unibertso muestralak antzeko banaketa dute, nahiz eta laginean Arabak pisua irabazten duen Gipuzkoaren kaltean. Nolanahi ere, agiri osoan zehar azaltzen den bezela, hiru lurralde historikoen kirol ohiturak ez dira asko aldatzen batetik bestera.
- ✓ Lurralde bakoitzeko errakuntza muestrala honako hau da: Bizkaia +/-4,3%, Gipuzkoa +/- 6,1% eta Araba +/-7,1%.

###### JAIOTERRIAREN ARABERAKO BANAKETA

- ✓ Alboko grafikoak adierazten du laginaren banaketa inkestatuaren jaioterriaren arabera.
- ✓ Atzerriko etorkinen taldea laginaren %5a suposatzen du, eta INEk 2007ko urtarrilaren 1ean aurkeztutako datuen arabera, EAEko biztanleriaren %4,6a etorkina da. Etorkinen kirol jarduerak eta beste biztanleen kirol jarduerak desberdintasun argiak aurkezten dituzte, dokumentuan zehar ikusi ahal izan daitekenez. Etorkinen talderako errakuntza muestrala +/-14%koa da.
- ✓ Espainiako beste eskualdeetatik iritsitako etorkinak laginaren %11a suposatzen dute. EAEko biztanlerian aldiz , %22<sup>a</sup>\*. Talde honek duen kirol jarduera ez da oso berezia beste biztanleenarekin konparatuz. Errakuntza muestrala +/-9,5%koa da.



\* Informazio iturria: Estatistika Institutu Nazionala INE (Padroi Munizipala 2007)


# 3 Eranskina: Unibertso muestralaren ezaugarriak

## INKESTATUAREN PERFILA/ UNIBERTSO MUESTRALAREN EZAUGARRIAK


### LURRALDEA, ADINA eta SEXUA

#### BIZILEKUAREN ARABERAKO HERRIZKAKO BANAKETA

- ✓ Ondoko grafikoak laginaren banaketa aurkezten du herrien arabera. Hiru kapitaleen eta lurralde historiko bakoitzeko herrien arteko bereizpena egiten da, jaioterrien arabera ohitura eta jarrera desberdinak aurkezten diren ala ez aztertzeko.
- ✓ Aztertutako laginean, hiru kapitaleen pisua unibertso muestralean baino handiagoa da. Honela, Gasteiz EAEko biztanleriaren %11 suposatzen du, eta Bibao eta Donostiak %16a eta %9a hurrenez hurren\*.
- ✓ Biztanleria herrien arabera eta adinaren arabera (15-75 urte bitarteko biztanleria) banatzen duten datu ofizialen falta dela eta, talde hauen errakuntza muestrala lortzea ezinezkoa da.



#### SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA



- ✓ Laginaren eta EAEko biztanleriaren banaketa sexuaren arabera oso berdintsua da. Euskal gizartearen benetako emakumezkoen kopurua %51koa da\*. Hortaz, sexuaren arabera estratifikatutako lagina dela ondorioztatu daiteke.
- ✓ Ikerketa honek biztanleriaren banaketa jarraitzen du sexuaren arabera.
- ✓ Talde bakoitzeko errakuntza muestralak hurrengo hauek dira: Gizonezkoak +/-4,6% eta emakumezkoak +/-4,3%.

\* Informazio iturria: Estatistika Institutu Nazionala INE (Padroi Munizipala 2007)

# 3 Eranskina: Unibertso muestralaren ezaugarriak

## INKESTATUAREN PERFLA/ UNIBERTSO MUESTRALAREN EZAUGARRIAK

### LURRALDEA, ADINA eta SEXUA

#### ADINAREN ARABERAKO BANAKETA

✓ INEko datuen arabera (Padroi Muzipala 2007), laginaren banaketak sexuaren arabera pisu gehiago eskeintzen dio gazteen taldeari EAEko benetako biztanleriak baino. Lagina ez da metodologikoki estrafikatu adinaren arabera.

✓ Nolanahi ere, adin talde bakoitzerako errakuntza muestralak ez dira oso esanguratsuak:

Laginaren errakuntzak	
15-25 urte bitartean	5,64%
26-35 urte bitartean	6,37%
36-49 urte bitartean	7,20%
50-64 urte bitartean	7,88%
65-75 urte bitartean	10,97%


✓ Laginaren banaketa adinaren arabera oso antzekoa da gizonezkoen eta emakumezkoen artean, errealitatean gertatzen den bezela. Honek suposatzen du sexu bakoitzerako estimazioak sesgatu gabeak direla. Hortaz, edozein aldagai endogeno baten erlazio-azalpena egitea ahalbidetzen du "sexua" aldagai exogenotzat hartuta.

	15-25	26-35	36-49	50-64	65-75	
Gizonak	31%	27%	19%	16%	8%	100%
Emakumeak	32%	23%	20%	17%	9%	100%

### 3 Eranskina: Unibertso muestralaren ezaugarriak

#### INKESTATUAREN PERFLA/ UNIBERTSO MUESTRALAREN EZAUGARRIAK

##### HILABETEROKO DIRU-SARRERAK



- ✓ Diru sarreren araberako laginaren banaketak azalpen bat behar du. Inkestatuaren maila sozioekonomikoaren araberako joera desberdinak aurkitzeko asmoz, galdeketan inkestatuak jasotako diru-sarrerei buruzko galdera bat txertatu zen. Esperentziak adierazten du estatus maila altua, erdia edo baxuagatik galdetua izango bazen, inkestatuak gehienetan maila erdiko estatusetan kokatuko litzatekela, bere benetako maila edozein izanik eta ondorioz azterketa baliogabetuz.
- ✓ Ondorioz, galdera hau diru sarreren arabera formulatu zen. Nolanahi ere, argitu beharra dago <1000€ ko taldeak bi perfil berezi batzen dituela: etxeoandreak eta ikasleak. Pertsona hauek ez dute diru sarrera zuzenik jasotzen baina horietaz gozatzen dute. Hortaz, diru sarreren eta estatus mailaren arteko baliokidetzaren onartzea distortsio puntu bat inplikatzeko du.

##### GAIXOTASUNAK eta GAIGABEZIAK

###### GAIGABEZIAK

- ✓ Laginaren %4ak kirola praktikatzea eragozten dion inolako gaigabeziren bat duela baieztatzen du.
- ✓ Halaber, gizonezko adintsuenak dira gaigabetu gehien dituen pertsonen taldea.

	15-25	26-35	36-49	50-64	65 -75
Gizonak	0%	5%	5%	12%	11%
Emakumeak	1%	2%	4%	7%	9%

###### GAIXOTASUNAK (Kardiobaskularrak, artikularrak, obesitatea, diabetesa, osteoporosia)

- ✓ Laginaren arabera, EAEko biztanleriaren %13ak jasaten du mota hauetako gaixotasunen bat.
- ✓ Adinaren eta sexuaren araberako taldeen banaketa honako hau da:

	15-25	26-35	36-49	50-64	65-75
Gizonak	0%	5%	5%	12%	11%
Emakumeak	1%	2%	4%	7%	9%

# 3 Eranskina: Unibertso muestralaren ezaugarriak

## INKESTATUAREN PERFILA/ UNIBERTSO MUESTRALAREN EZAUGARRIAK


### KLUB/ERAKUNDE BATEKO BAZKIDETASUN/HARPIDEDUN MAILA

#### DIRU SARREREN arabera BANAKETA


- Adinak gora egin ahala, bazkidesun/harpidetasun maila zerbait handiagoa da. Halaber, diru sarrera altua duten pertsonen artean klub pribatuak pisua handiagoa dute.

	Erakunde municipala	Klub/gimnasio pribatua	Biak	Bat ere ez
<1000 Euros	17%	14%	3%	66%
1000-1500	20%	10%	2%	68%
1500-2000	20%	13%	6%	62%
2000-3500	20%	23%	2%	55%
>3500	17%	67%	17%	0%

- EAEko biztanleriaren %35a kirol erakunde publiko edota pribatu baten bazkidea/harpideduna da, laginaren arabera.



- Baiezkoa erantzun dutenen artean (%35), kirol erakunde publikoetako bazkide/harpidedun kopurua handiagoa da, klub/gimnasio pribatuetakoa baino.



#### SEXU-ADINAREN arabera BANAKETA

- Kirol erakundeetako parte-hartzea sexuaren arabera aztertzen badugu, ez dira desberdintasun nabarmenik ikusten (gizonezkoetan %36a eta emakumezkoetan %34a).
- Hala ere, biztanleria adinaren arabera taldeetan banatzen badugu, argi eta garbi ikusten da nola adinak gora egiten duen heinean, bazkidesuna/harpidetasuna beherantz doala.

15-25	26-35	36-49	50-64	65-75
39%	27%	27%	13%	5%

#### TALDE BEREZIAK

- Gaigabetuen taldeak biztanleria osoaren bazkidesun/harpidetasun beretsua du, baina erakunde publikoetarako joera argiagoa du.

Erakunde municipala	Kluba	Biak	Bat ere ez
21%	12%	7%	60%

- Atzerriko etorkinen taldean, %8a besterik ez da kirol erakunde baten bazkide/harpidedun.

# 3 Eranskina: Unibertso muestralaren ezaugarriak

## INKESTATUAREN PERFILA/ UNIBERTSO MUESTRALAREN EZAUGARRIAK


### KIROL FEDERAZIOEN LIZENTZIA MAILA

#### DIRU SARREREN arabera BANAKETA

- Diru sarreraren eta lizentzia federatiboa eukitearen arteko erlazio zuzenik ez dagoela dirudi. Soilik igerri daiteke diru sarrera altuenak dutenen taldean, portzentaia altuagoa dela (hala ere, talde honen lagina ez da oso esanguratsua ; 6 inkesta).

	Bai	Ez
<1000 Euro	12%	88%
1000-1500	10%	90%
1500-2000	15%	85%
2000-3500	14%	86%
>3500	67%	33%

- Aztertutako laginaren arabera, EAeko 15-75 urte bitarteko biztanleriaren %13ak kirol lizentzia federatiboa du. INEko 2006ko datu ofizialen arabera, portzentaia %12koa da.



- Egindako inkesten arabera, lizentzia gehien dituzten federazioen artean futbolekoak (bai lurralde historikoen alorrean eta baita Erkidego osorako alorrean) bereiztu behar dira. Futbol federazio hauek lizentzien %21a suposatzen dute. Honen ondoren, mendi eta eskalada federazioa (%12arekin) eta golf federazioak (%10arekin) aurkitzen dira. Beste federazioak ez dira %5eko portzentaia heltzen. INEko datu ofizialen arabera, portzentaia honako hauek dira: futbol federazioek lizentzien %16a batzen dituzte, mendi eta eskaladakoek %13a eta golfekoek %8a.

#### SEXU-ADINAREN arabera BANAKETA

- Gizonezkoen artean dagoen federatuen portzentaia (%20) emakumezkoena baino askoz ere handiagoa da (%5).
- Adinaren arabera bereizpena egiten badugu, argi ikusi daiteke nola adinak gora egiten duen heinean lizentzien kopuru erlatiboa beherantz egiten duen.

15-25	26-35	36-49	50-64	65-75
18%	12%	13%	6%	5%

#### TALDE BEREZIAK

- Gaigabetuen artean, lizentzia federatiboa dutenen portzentaia %7koa da.
- Atzerriko etorkinen artean, %2ak besterik ez du baiezkoa erantzun.

---

## Eranskinak

---

- Inkesta prozeduraren fitxa metodologikoa
- Argipen metodologikoak
- Unibertso muestralaren ezaugarriak
- Beste inkesta batzuekiko konparaketa
- Galdeketa

## 4 Eranskina: Beste inkesta batzuekiko konparaketa

---

- Atal honek, lehenago eginiko inkesta batzuekiko konparaketa zentzuduna egitea dauka helburu. Lehenik eta behin, inkesta bakoitzean erabilitako irizpideak desberdinak direla kontutan eduki behar da. Hortaz, datuak nahi ta nahi ez arreta eta kontu handiz ulertzea behartzen gaitu, konparaketa honen araberako ondorioak ateratzeko orduan.
- Hausnarketa hau era bat argi euki ahala, atal honetan EAEko egungo egoera aurkezteari ekingo diogu, Europar Batasunarekin, Estatuarekin eta Gipuzkoako lurralde historikoarekin alderatuz. Erabilitako inkestak honako hauek dira, hurrenez hurren:
  - The Citizens of the European Union and Sport. “Eurobarómetro 2004.”
  - Encuesta de Hábitos Deportivos de los españoles. “Consejo Superior de Deportes 2005.”
  - La práctica de Actividad Física y Deporte en la población adulta de Gipuzkoa. Hábitos y datos comparativos. “Gipuzkoako Foru Aldundia 2006.”
- Inkesta mota hauen konparaketa egiteko landu behar den irizpide bateratzeari dagokionez, **COMPASS europar proiektua** aipatu beharra dago. Proiektu honetan, europako herrialde batzuen estatistika zerbitzu nazionalak eta kirol ikerketan oinarritutako erakunde publiko desberdinek hartzen dute parte. Proiektu honen helburua, Europar Batasuneko herrialdeentzako irizpide bateraketa lortzea da, kirol praktika eta honekin erlazionaturiko aspektu desberdinen arteko konparaketa ahalbidetzeko irizpideak finkatzearen itzaropenez. Honetarako, kontzeptu teoriko eta instrumentu metodologiko berdinez baliatzeko nahia dago (Gratton, 1999).

COMPASS proiektu honek erabilitako irizpideetako bat honako hau da: “dantzak, ehiza eta arrantza, ibiltzea, arrisku kirolak, herri kirolak eta yoga/taichi ez dira kirola kontsideratzen.

*Kirol ohiturei buruzko inkesta EAEan 2008 inkestan, kirol praktikaren definizioaren mugaketa zorrotasun gutxiago du, eta ibiltzea salbuespen izanik, aurreko modalitate guztiak onartzen ditu: ibiltzea solik kirol aktibitate bezala ulertzen da baldin eta denbora tarte zehatz bat ibiltzeko erabiltzen bada sasoian edo osasuntsu egoteko helburuarekin. “Ibiltzea” ez da kirol aktibitatea kontsideratzen, mugikortasun arrazoiengatik egiten bada (lanpostura joan, ikasketa zentrura joan, erosketak egitera joan, etab.).*

## 4 Eranskina: Beste inkesta batzuekiko konparaketa

---

